

Oinarrizko ponentziaren laburpena

1. Sarrera

Euskal prozesu politikoaren eta herri proiektuaren garapenerako une garrantzitsua da egungoa, datozen urteotako jarduera eta erronkak zehaztu behar baititugu aurrerapausoak egin eta lorpenak eskuratzeko anbizioz. Gure burua prestatu behar dugu datozen urteotan sor daitezkeen eta sortarazi behar ditugun aukerak baliatzeko, eta seguru izango diren oztopoei aurre egiteko.

Hauxe da Oinarrizko ponentziaren tesi nagusia:

Uste dugu bi faktore erabakigarri daudela gaur egungo abagune politikoan: politika neoliberalen porrota eta Espainiako eredu autonomikoaren agortzea. Egoera horren aurrean, alternatiba bakarra da gure sen komunitario-nazionala indartzea xede izango duen mailaz mailako burujabetza prozesua garatzea, funtsezkoa baita botere politiko handiagoa lortzea, politika ekonomiko eta sozial eraldatzailerak egikaritu ahal izateko, herri honen etorkizunarekin konprometituta egongo den sektore publiko baten eskutik. Horretarako proposatzen dugu hirugarren eraldaketa nazionalari ekitea.

Ponentzia blaitzen duen beste ideia-gako bat aipatzen den prozesu politikoa, prozesu graduala izango dela da. Alegia, unez-une sortu eta eraikitzen diren baldintza politikoek osatzen dutela euskal prozesu politikoa. EH Bilduren eraikitze prozesuarekin paralelotasun argia dauka aipatzen ari garenak: zabal-kunde eta eraikuntza iraunkor eta etengabe dagoen subjektua da, euskal prozesu politikoa bezalaxe.

Eta honako hauek dira, besteren artean, kongresuan landuko diren indar ideiak:

- Burujabetza osoaren eta eraldaketa sozialaren prozesuaren baitan fase politikoa definitzea, eta epealdi honetan barrena, aurrerabidean urrats esanguratsuak egiteko eskuratu beharreko egiturazko lorpen zehatzak identifikatzea.
- Nazio eraldatze berri bat sustatzea, modu iraunkorrean garatu beharreko lehen mailako eginbehar gisa. Hitz gutxitan: eraldaketa nazional berri bat abiaraztea.
- Programa politiko eraldatzailea hezurramitzea, beste sektore eta eragileekin batera egin beharreko ariketarako. Herri proiektua eratzeko herri erronkak identifikatu, partekatu eta martxan jarri behar ditugu Euskal Herrian sakoneko aldaketa politikoak zein sozialak erdietsi nahi ditugun guztion artean.
- EH Bildu lanabes eta erreferentzia politiko estrategiko gisa indartzea.

2. EH Bilduren hazkundea

Azken hauteskunde zikloak EH Bilduren goranzko joera berretsi digu. Oro har, ezker independentistak aurrera egin du, kuantitatiboki bezainbeste bere eragiteko gaitasunean eta egiten diren politikak erabakitzeko ahalmenean. Izan ere, indar zentrala gara gizartean, eta indar erabakigarria gara instituzio guztietan.

Guztiarekin, aldaketa handiena hau da: Euskal Herria erabat aldatu da, eta 2011ko ikuspegiek ez digute balio 2024ko errealitatearen irakurketa zuzena egiteko, are gutxiago hurrengo hamarkadari begirako aurreikuspenak eta ildoak definitu behar ditugunean orain, pentsa baitaiteke gaur eguneko joerak azkartu egingo direla. Mundu mailako aldaketek gurean duten eraginari, Euskal Herrian gatazkaren parametroak eta gure eskubide nazional eta sozialen aldeko borroka ulertzeko modua aldatu izana gehitu behar zaio. Beste gizarte ingurune batean mugitu behar gara orain.

Historikoki ezkerreko independentismoa eta subiranismoa ahulagoa izan den lurraldeetan gertatzen ari den aldaketa da, beharbada, **naziogintza eraldatzailearen ikuspegitik irismen handiena duena**. Izan ere, lurralde guztietan metatu ditugu indarrak, eta lehen baino gehiago gara orain, baina Araban eta Nafarroan izandako bilakaerak sakoneko mugimendu soziologiko baten aurrean gaudela iragartzen digu, non argiki agertzen den inoiz baino handiagoa dela Euskal Herria erreferentzia gisa duten eta aldaketa politiko eta sozialerako gogoia adierazten duten herritarren kopurua. Horrek, batetik, aliantza berriak ahalbidetu ditu honezkero, eta, bestetik, Euskal Herria ehuntzeko eta lurraldea egituratzeko babes indartsua dugula erakusten digu.

Horrenbestez, euskal gizarteak izan duen bilakaeran, 2024an gure alde daukagun funtsezko osagaia hau da: geroz eta jende gehiagok egiten du bat EH Bilduren ideiekin, eta asko hedatu da euskal gizartean daukagun eragiteko gaitasuna. Ezkerreko subiranismoak eta independentismoak daukan eragiteko gaitasun indarberritu horrek finkatzen du gure orubea aurrera egiteko.

3. Mobilizazio ziklo indartsua

Alor askotatik elikatutako mobilizazio zikloa izan da, gorabeheratsua iraunkortasunari dagokionez, baina tartean, inoizko mobilizazio handien lekuko izan dena: Gure Eskuren mobilizazioak; pentsionisten borroka; presoen etxeratzearen aldeko mobilizazioak; Altsasuko gazteen alde justizia eske; Korrika; ETaren armagabetze prozesuan gizarte zibilaren inplikazioa; euskararen aurkako erasoei erantzuna; euskal sindikalgintzaren grebak eta mobilizazio ildoak.

Guztien artean bat nabarmendu behar bada, izan dituen ezaugarri bereizgarriengatik eta izan duen indararengatik, hori da Euskal Herriko feminismoak egin duen ekarpena pentsamendu askatzaile bat eratzeko, eta eragin duen iraultza pertsona askez osatutako herri aske bat eraikitze bidean. Argiki, gure prozesu askatzailea ezin da ulertu borroka horrek ekarri duen eraldaketa erdigunean jarri gabe.

4. Euskal naziogintza eraldatzailearen erronkak

Gure diagnosis hau da: botilak ura galtzen du, gure herriaren metabolismo komunitarioa ahultzen ari da. Naziogintzan aurrerabide sendorik egin ezean edo burujabetza maila altuagoak lortu ezean, Euskal Herriaren nazio proiektua eta gure herri identitatea zaugarri ageri dira datorren hamarraldian ditugun erronken aurrean ongi kokatzeko.

EAE eta Nafarroan lorpen politiko eta instituzional estrukturalik ez dugu erdietsi burujabetzaren bidean. Zentzu berean, ez da aurrerapausorik egin lurraldeen arteko artikulazio politikoan.

Nabarmendu behar da, gainera, Espainiako Estatuaren aldetik azken hamarkadetan zentralismorako urrats handiak egin direla, eta marko autonomikoaren eta foralaren potentzialtasun eta eskuduntza asko kamustuta edo edukiz hustuta ageri direla. Estatuaren esku-sartzea handitu egin da, eta auzitegien ebazpenen bidez Espainiak ahalmen asko berreskuratu ditu.

Oharkabean igaro diren erasoak izan dira gehienetan, gure autogobernuaren eta nazio izaeraren aurkako erasoek ez baitute neurriko erantzunik jaso euskal erakunde eta alderdien aldetik, eta ez dute inolako konfrontazio politikorik eragin. Egoera horien aurrean ez dugu gaitasunik izan gehiengo soberanistak erantzun bateratu baten inguruan egikaritzeko.

5. Euskal Errepublika konfederala helburu: herri prozesu demokratikoa

Euskal Herria eraikitzeko eta eraldaketa soziala erdiesteko prozesuak herri izaera izango du betiere. Hau da, egin beharreko ibilbideak nahikoa babes (gehiengo nahikoak lortu) eta inplikazio (sektore zabalen aktibazioa) behar ditu izan, indar harreman egokiak sortu ahal izateko; dela erasoaldiei eta inboluzio tentaldiei aurre egiteko, dela negoziazio mahai eta foroetan lorpenak eskuratzeko eta horiek betearaztea bermatzeko, dela herri gisa burujabetasunez erabakiak hartzeko.

Euskal Errepublika Konfederalaren egitasmoa, hasieratik amaieraraino, gaur egungo hiru eremuen herritarren borondatea –bakoitza berean adierazita– errespetatuz gauzatu beharko da. Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Hirigune Elkargoa entitateek barnebiltzen dituzten hiru eremuek hala erabakita eraiki ahalko da Euskal Errepublika Konfederala, eta horrek emango dio borondatezko lokera demokratiko eta herritar sendoa.

Barne adostasuna eta kanpo harremana ahalik eta modu onuragarrienean taxutzeko, prozesuari erabateko izaera demokratikoa ematea hobesten du EH Bilduk, hau da: Euskal Herriko indarren eta eragileen arteko eztabaida eta akordioak garatu eta erakundeetan akordio horiek ofizialdu; akordio nagusiak osoki eta bermeekin egikaritzeko estatuarekin negoziazio eremua herri gisa zabaldu, eta amaieran euskal herritarren berrespena jaso.

Eskema horrek bi printzipio gidari izan beharko lituzke: marko legalak eta legeria oro har herri borondateari egokitu behar zaizkio, eta ez alderantziz; eta eskubide guztiak –kolektiboak zein indibidualak, politikoak zein zibilak– pertsona guztientzat bermatu behar dira.

6. Aurrera egiteko identifikatutako funtsezko gaiak

Honakoak dira, aurrera egiteko identifikatutako funtsezko gaiak

Nazio aitortza, lurralde bertebrazioa, erabakitzeko eskubidea, eskumen botere maila handitzea eta bermatzea, eta elkarbizitza sustatzea etorkizun hobe bat ahalbidetzeko.

Susperraldi berri bat suposatuko duen beste ziklo historiko bat abiarazi behar dugu. **Sendoa eta sakonekoa, arnas luzekoa. Inflexio puntu** baten beharraz ari gara euskal naziogintza eraldatzailearen prozesuan, inertziak hautsiko dituen arnasberritzea alor sinbolikoan, hizkuntzan, kulturaren, hezkuntzan, alor sozial zein ekonomikoan eta abar. Horrez gain, autogobernuaren dimentsionatze berri bat eta tresna politiko-juridiko burujabeak behar ditugu erronka horiei ekiteko.

7. Herri eraldaketarako proiektuari ekarpena

Badira bi oinarri herri proiektu partekatu baten orubea finkatzeko: **Euskal Herria nazio gisa aitortzea eta politika neoliberalak gainditzea**. Euskal Herriak, bere osotasunean, errealitate nazional propioa osatzen du eta hori aukera bat da komunitate inklusibo eta solidario bat eraikitzeo, herritarrak zaindu eta beren eskubideak babesteko. Halaber, **kontsentsu neoliberalak hautsi den garaiotan**, nahikoa ebidentzia eta esperientzia historiko dago **politika neoliberalak gainditzea premiazkoa zaigula esateko**, gizarte kohesioa bermatuko bada eta planetaren muga biofisikoen baitan sartuko diren gizarte antolamendu berrietara igaroko bagara.

Gure Kongresuari jarraipena emanez, herri erronkak definitzeko ariketa egingo dugu datozen hilabeteotan, EH Bilduren programa politikoa osatze aldera. Jakin badakigu, hargatik, herri erronken definizioak askotariko eragileen artekoa behar duela izan, behetik gora egin beharreko langintza dela, eta, ondorioz, ez dagokiola EH Bilduri bakarrik. Ekarpene gisa egiten dugu gure programa politikoa osatzeko ariketa hori, euskal naziogintzan diharduten eragileekin batera gogoeta partekatua sustatzeko borondatez. Izan ere, programa politikoa horrek ezkerreko subiranismoak eta independentismoak herri eragile askotarikoekin **nazio elkarrizketa** sustatzea luke helburu, jadanik aipaturiko eraldaketa nazionala martxan jartzeko, eta denon artean irudikatutako herri erronkak gauzatzeko bidean jartzeko.

8. EH Bildu, lanabes estrategiko gisa indartu

Enbor beretik hiru adar: koalizioa, indar politikoa eta mugimendua

Horiek horrela, alde batetik, EH Bildu indar politikoa ezberdinez osaturiko **koalizioa da**, eta errealitate hori **errespetatu behar da** alderdi bakoitzaren izaera eta ekinbidea onartuz. Haien tradizio, balio eta ekimenen bidez egiten duten ekarpena EH Bildu bera indartzeko onuragarria izan dugu eta izango dugu aurrerantzean ere.

Bistan da, aldi berean, EH Bildu harago zabaldu dela eta erreferentzia zuzena dela sektore eta norbanako askorentzat, eta EH Bilduren baitan jardun duen kide askorentzat gurea dela eztabaida eta erabakigune

politiko bakarra. Errealitate horrek trinkotu egin du EH Bildu **mugimendu politiko gisa**, eta bere nortasun propioa sendotu, ezinbestean eta zorionez.

Ez da, ordea, sistemaren baitako indar edo alderdi politiko klasikoa. **Indar eraldatzailea da** eta, zentzu horretan, burujabetzaren aldeko gainerako indar eraldatzaile guztiekin batera mugimendu politiko eta sozial gisa garatzen ari da.

Laburbilduz: **ezkerreko independentismoaren eta subiranismoaren erreferentzia eta lanabes politiko/instituzional nagusia da EH Bildu**, prozesu autozentratu eta mailaz mailakoaren norabideratze politikoan eta prozesu horren nolakotasunari buruz eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko.

9. Kongresuari ezarritako helburuak

Honakoak dira EH Bilduk kongresuari ezarritako helburuak:

Fase politiko honetan gaur egungo administrazio eremuetan aldaketa esanguratsuak lortzen saiatzea, nazio onarpenaren, lurralde kohesioaren eta eskumen boterearen handitzearen eskutik, alde batetik; burujabetzarako eta eraldaketa sozialerako ibilbideari erregaia emango dion herri susperraldi berri bat martxan jartzea, beste batetik. Bistan da hori dena edozein alderdikeriaren gainetik egin behar dela, eta halaxe garatu nahi ditugu guk ere erronka horiek, askatasunaren bidea maila batean edo bestean urratu nahi duen eragile edo indar ororekin elkarlanean.